ASTEKARIA | 2015eko uztailaren 10ean | XVIII. urtea | USURBIL | 623. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

# noaua



Bus-taxi zerbitzua, udako ordutegiko martxan

Usurbil Cup, iruditan

Joxe Mari Zubimendi izendatu dute Zubietako alkate

# Mundu bat ibili da festetan


ATXEGA JAUREGIA
ATXEGA JAUREGIA USURBIL
ASTEAN ZEHAR GAUETAN IREKITZEN DUGU!
(ASTELEHENAK EZIK)
·Eguneko menua 17,50€ (BEZ barne) astelehenetik ostiralera eguerdian eta GAUEAN !!!
·Asteburuko menua 31€ (BEZ barne), Karta
Ospakizunak, ezkontzak...leku aproposa eta aukera zabala
Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150


FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).
ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR, ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)
943 36 21 63 (24H)
·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN (gure eskutik)
info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es


ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!
188.000 € tik
12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com

## Albistea irudita

# Bus-taxi zerbitzua, udako ordutegian

Aurreko urteetan bezala, uztailean soilik goizez funtzionatuko du; 07:30etik 08:30era, 10:30etik 11:30era eta 13:00etik 14:00etarako zerbitzuak burutuko ditu. Beraz, arratsaldeetan, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 tarteetan ez da zerbitzurik izango.

**Abuztuan, zerbitzurik ez**

Kontuan izan behar da jai egunetan ez dela zerbitzurik izaten, Santixabel egunean (uztailak 2) eta uztailaren 31n, hain juxtu. Abuztuan zerbitzua eten egingo da.

**Irailetik aurrera, ohiko ordutegian**

Usurbilgo Udalak eta Behemendi Landa Garapen Elkarteak herritarren mugikortasuna errazteko martxan jarri zuten bus-taxi zerbitzuak bere horretan jarraituko du datorren ikasturtean ere. Irailaren 1ean, asteartea, ohiko ordutegia berreskuratuko du bus-taxi zerbitzuak.




**Soilik goizez ibiliko da uztailean. Abuztuan eten egingo da zerbitzua. Irailaren 1ean, ohiko martxa berreskuratuko du berriro.**

## Laburrean

### Larunbat honetan, ibilgailu klasikoen topaketa

Larunbat honetan, uztailak 11, ibilgailu klasikoen bilgune izango da Usurbil.
09:30 Irteera Usurbilgo Saizar sagardotegitik.
10:00 Usurbilgo inguruetan ibilgailuen martxa.
12:00 Ibilgailu klasikoak Usurbilgo Dema plazan sartuko dira. Ondoren, hamaiketakoa doan.
14:30 Bazkaria Saizar sagardotegian.

### Dirulaguntzak, euskara ikasten aritu direnentzat

Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 8an amaituko da. Onuradunak izateko baldintzak: Usurbilen erroldatua egotea; ikastaro osoan zehar, gutxienez %80ko asistentzia izatea; gutxieneko aprobetxamendua gainditzea.

Informazio gehiago: udal errejistroan, usurbil.eus edo ekainaren 2ko GAO-n.

### Gaztelekuak irteera ugari antolatu ditu egunotarako

Uda parterako aisialdi eskaintza zabala antolatu du Gaztelekuak, DBH-ko gazteentzat.
**Uztailak 9 osteguna:** Gamarrara DBH2koekin.
**Uztailak 13 astelehena:** Hernaniko igerilekura DBH1ekoekin.
**Uztailak 14 asteartea:** Bilbora DBH3 taldekoekin.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

# Amore, umore and more

San Ferminak bete-betean ditugunez eta festak ligatzeko garai aproposak direla jakinda, egokia iruditu zait barrea eta harreman afektibo-sexualen arteko erlazioaz hitz egitea tarte honetan.

Hainbat ikerketaren arabera, umorea bikote berria aukeratzeko zein bikotean jarraitzeko elementu garrantzitsuenetako bat da (sexua, ekonomia eta komunikazioarekin batera). Izan ere, nori ez zaio gustatzen barre eginarazten dion norbait ezagutzea? Barreak poztasuna ematen digu, energiaz betetzen gaitu eta gure ongizatea sustatzen du. Gainera, pertsona positiboak gehiago lotzen ditugu desira eta gozamen sexualarekin.

“Beno, eta zeri ari zara itxaroten? Nola egiten da umore praktika hori?” galdetuko didazue. Lasai, hona hemen zenbait gomendio umorea erabiliz mutiletan eta neskatan egiteko:

Umorea modu naturalean eta berezkoan erabili. Hau da, ez kontatu dakizkizun txiste guztiak batera, modu horretan maitemindu baino nazkatu egingo duzu eta. Elkarrizketan tartekatu umore aipamenak, pasadizoak, baina landu baita ere elkarrizketa gaiak, entzuteko eta ulertzeko gaitasunak eta zure ezagutzak.

Esanahi bikoitzeko hitzak eta esaldiak erabili, oso iradokitzailea baitira (erotikus festibus, alegiya).

Beste pertsonari barrea eragiten diozunean, berezia sentitzen da une horretan. Ezinbesteko baldintza erlazioan aurrerapenak egiteko.

Umore mota asko daude, eta pertsona hori ez badugu ondo ezagutzen, erabili umore adeitsua. Gehiago ezagutzen duzunerako utzi ironiak, umore beltza eta bestelakoak.

Pausu hauek guztiak eman eta hala ere kalabazak jasotzen badituzu (nola da posible? ;), erabili umorea egoera horri aurre egiteko eta erretreta dotorea egin ezazu.

Beno, San Praixkuak eta gero inkesta egingo dut hemen emandako gomendioek balio izan duten jakiteko. Bitartean... egin dezagun amore, umore and more egunero!

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | **Idoia Torregarai** | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi

## Ika-Mika

# Animalienganako tratu txarrekin amaitu dezagun!

Iritsi da udara, eta honekin batera festa herrikoiak hasiko gara ospatzen euskal herrietan edo herrietako auzoetan. Gure herria oso aberatsa da jai herrikoietan, eta auzo bakoitzak bere festak ditu. Ika-mika hau herriko festetan dugun ekimen baten inguruko hausnarketa bat da, idi-demaren inguruan hain zuzen ere.

EAJ Donostiako udalean sartu berri da, eta hauekin batera badirudi zezenketak itzuliko direla Ilunbeko zezen plazara. Gaur egun nahikoa barneratuta dago gizartean zezenketen aurkako iritzia, baina idi-demaren inguruan ez da iritzi asko entzuten. Zein da, baina, hauen arteko ezberdintasuna? Egia esan, pixkat aztertzen badugu, azkar ikusiko dugu ez dela ezberdintasun handirik. Bi ekimenetan animaliek tratu txarrak jasotzen dituzte, jendea dibertitzeko aitzakipean. Zezen zein idiak drogen efektupean ateratzen dira plazara, eta oso urduri daude hainbeste jenderen presentziarekin. Biek asko sufritzen dute, eta zezena bertan akatzen dute, idiak aldiz, beste batean erabili ahal izateko bizirik uzten dira. Noski, etikoki guztiz tokiz kanpo dago animalia bat sufriaraztea gu dibertitzeko, eta are gehiago era krudel honetara. Lehengo urtean lehenengo aldiz idi dema ikusteko aukera izan nuen, Askekintza talde animalistak antolatutako protesta batean, eta ikusi nuena oso bortitza izan zen. Interneten badago bideo bat norbaitek ikusi nahiko balu erraz aurkituko duena. Edozein idi dema ikusten duenak zaila izango du idiak asko sufritzen duela ukatzea.

Baina animaliaren sufrimenduaz gain, beste gauza bat azpimarratu nahiko nuke. Asko goibeltzen nau ikuskizun hauetaz gozatzen duen jendea badela pentsatzeak. Nola daiteke posible norbait sufritzen ikusi eta barruan zerbait ez mugitzea, are gehiago, ikusten ari zaren horrekin gozatzea? Argi dago gizarte honetan gauza asko daudela gaizki, baina bertan lan egiten dutenen gehiengoez gain, ez dut ezagutzen espetxera presoak sufritzen ikustera joateaz gozatzen duen inor, esate baterako, horregatik egiten zait ulertezina idi-demarekiko zaletasuna.

Azkenaldian izan dira zenbait aurrerapauso zentzu honetan, Oreretako jai batzordeak eman zuena bezalaxe, zeinak erabaki zuen idi probak amaitutzat ematea hauek suposatzen zuten tratu txarra ikusirik. Eman dezagun Usurbildarrok ere aurrerapauso hau, animalienganako tratu txarrekin amaitu dezagun!

**Korianoren Lagunak***

# Justiziak arrazoi eman die Hernani, Lezo, Pasaia eta Usurbilgo udalei

San Marko mankomunitatearen aurrekontuan edukiontzi bidezko sistema ordainarazi nahi zitzaien, nahiz eta lau herri horiek atez ateko bilketa egin. Epaileak beraz, ez du ontzat jo San Marko mankomunitatearen asmoa. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Zigor Salak arrazoi eman die lau udalei.

San Marko mankomunitatearen aurka egin zuten atez atekoa egiten duten lau herri hauek. Ez zeuden ados beren bilketa sistema ordaintzeaz gain, San Markoko beste udalerrietako edukiontzizko bilketa-gastuak ere ordaindu behar izatearekin, jakinik udalerriko biztanleria portzentajearen arabera kalkulatzen direla kostuak.

Epaia jakin eta berehala, EH Bilduk ohar bat kaleratu du poztasuna erakusteko. Prentsa-ohar bidez aditzera eman duenez, “2014 eta 2015eko aurrekontuetan, kontenedore bidezko bilketa selektibo borondatezkoa 10 udalerrien artean ordaintzera behartu gintuzten, nahiz eta 4 herrietan bakarrik egiten den bilketa mota hori. Beste herriok, nahiz eta beti gure negoziatzeko eta hitzegiteko prestutasuna azaldu dugun, mankomunitateko gobernuaren aldetik ezezko borobila besterik ez dugu jaso eta 4 herriek bakoitzak bere bilketa ordaintzeaz gain, herri eta hiri handienen bilketa ere ordaindu behar izan dugu, *eskotean*”.



**Atez ateko udalerriek ez dute gainontzeko udalen edukiontziak pagatu beharrik. Hala agindu du epaileak.**

%80ko birziklatze tasa lortu duten herri txikiek, “beraien bilketa gehi %30eko birziklatze-tasa duten herri eta hiri handien bilketa ordaintzera ezin gaitu behartu”, EHBilduren iritziz. “Gure poztasuna beraz hemendik dator, erabateko injustizia pairatzen ari ginen herrien alde ebatzi du Bilboko Epaitegi Gorenak eta herri bakoitzak soilik berak jasotzen duen zerbitzuengatik ordaindu behar dugula adierazi du”.

### Europak zoriondutako sistema

EHBilduk berriro ere bere prestutasuna adierazi nahi du, “birziklatzearen aldeko pausuak elkarrekin eta adostasunez ematera, soilik horrela lortuko baitugu, orain arte bezala, Europak zoriontzea eta eredugarritzat jartzen jarraitzea”.

**Ika-Mika**

## Eskerrik asko

Usurbilgo Gure Esku Dagotik eskerrak eman nahi dizkizuegu hilabete hauetan zehar ilusioz modu batean edo bestean dinamikak antolatutako ekimenetan lagundu duzuenoi. Asko izan zarete tutore lanetan zuen ingurukoak biltzen aritu zaretenak, oihalak apaintzen eta josten egondakoak, maiatzeko Joste Eguna antolatzen eta aurrera ateratzeko behar zen guztia prest egoten lagundu zenutenak, ekainaren 21ean Anoetan oihalekin edo txosnan boluntario moduan lan egin zenutenak, Anoeta betetzera edo Urumeako oihal katera ilusioz gerturatu zinetenak, ekitaldiko sarrerak saltzen lagundu duzuenak, informazioa herritar orori iristeko lanean aritu zaretenak... bihotzez, eskerrik asko!!

Aurtengo ekitaldi nagusia amaituta balorazioen garaian gaude eta taldean ere egin dugu gurea. Onartu behar dugu zapore gazi-gozoarekin atera ginela Anoetatik. Gazia, helburua estadioak betetzea izanik ez genuela bete onartzen dugulako. Gazia, ekitaldiak berak bere ahulguneak izan zituelako eta herritarren espektatiba betetzen asmatu ez zelako. Gazia, egunean zehar hobetu zitezkeen beste hamaika kontu egon zirelako.

Baina gozoa ere bai. Gozoa, Gipuzkoan eta baita beste lurraldeetan ere lanean aritutako boluntario kopurua izugarria izan delako. Gozoa, egunean bertan eta baita aurretik ere, herritarren aldetik sumatu dugun ilusioa itzela izan delako. Gozoa, kopurutan antzeman ez bada ere iaz iritsi ez ginen jendearengana iristen hasi garelako.

Gaztea da Gure Esku Dago eta handia da aurrean duen erronka. Martxan dago lehenagotik ere dinamikaren helburu, izaera eta ezaugarriak adostu eta definitzeko prozesua eta gure asmoa prozesu hau herrira irekitzea da. Orain artekoaren balorazioa burutu eta hemendik aurrerakoa definitzeko gogoeta herritarrekin batera egin nahi dugu. Horregatik, datozen hilabeteetan herritarrekin harremanetan jartzen hasiko gara horretarako formula desberdinak erabiliaz.

Mila esker eta aupa zuek!

Herri bat gara. Erabakitzeko eskubidea dugu. Herritarron garaia da.

**Gure Esku Dago Usurbil**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 17. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 13.

# Bertsopaper lehiaketako sariketa, kantu betean



**Santixabel bertsopaper lehiaketako sari banaketa. Ezker eskubi, hiru sarituak: Imanol Zarautz "Troia" (Kinttin Segurolarekin), Uxue Fernandez eta Jon Aizpurua (biak, Iñaki Agirresaroberekin). Sei bertso-sorta aurkeztu dira aurtengo edizioan. Lehen aldiz, sari banaketa ez da jaietako bertso-saioan egin, lehenago baizik. Ekainaren 26an, Sutegin eginiko ekitaldi batean eman ziren sariak. Herriko musikarien laguntzaz, bertsoak ozen entzuteko aukera ere izan zen.**

## 1. saria: Imanol Zarautz *Troia*
## "79 kilometro eta 20 herri" bertso sorta

1/ Luze kilometroetan
ia laurogeiren bueltan,
giza arraza sortu aurretik
zaudena hor bertan!
Hogei herriren bueltan
aztarnak utziz urtetan,
lurralde baten esentzi zati
bat zure uretan! (bir)

2/ Aizkorri aldian jaio
isuri eta jario,
pago artean lehen errekak
natura garraio,
aldapa dela medio,
bihurtzen zera errio,
Goierri dezu sorleku eta
hiltoki Orio. (bir)

3/ Zegama ta gero Zerain
Idiazabal ta Beasain,
bidean dauden anai ttikiei
hartzen diezu gain!
Bazatoz eder ta lirain
Itsasondo daukazu zain,
Zure patua gogoraraziz
geza zeran garain

4/ Handik Tolosa aldera,
guztia dezu gainbehera,
baina suertez aldatua da
zendun egoera,
dozena bat papelera,
eraitsi dittuzte bera,
itzuliz zoaz garai batean
izan zirenera. (bir)

5/ Errebueltan bazterrak joz
Lasartera metroak motz,
bide-saria kobratu asmoz
hortxe da Abalotz,
ubide ta presa zorrotz,
zu zirikatzeko gogoz,
bion borrokak berotzen dittu
hamaika etxe hotz. (bir)

6/ Usurbil eta Agiña
zein paraje atsegina,
nahiz noizean behin, urpean hartzen
egin ahalegina,
zure korronteen grina,
meandro ta legar fina,
begien bistan azalduz doa
heriotz urdina. (bir)

7/ Behin igaro ezkero Sari
lasaitasuna nabari,
sei ordutik behin besarkadatxo
bat ur gaziari,
itsasadarra zaindari,
hil kanpaiak ur gezari,
ezin aldegin itsasoaren
zurrunbiloari. (bir)

8/ Ur guztien bilgunean,
putzu sakon ilunean,
ernaltzen zoaz hodei gisara
hezetasunean,
mendi gainak urrunean,
topatzen dittuzunean,
berriz bizitza sortuko zaizu
ekaitza denean! (bir)

**Doinua: "Mendian gora haritza"**






# 2. saria: “Laurogei urte, amona”, Uxue Fernandezen eskutik

**Doinua: “Haurtxo txikia negarrez dago”**

1/ Nire gelako leiho ertzetik
goxo atzera begira,
zenbat pozaldi, zenbat tristura
zenbat pasarte guztira,
zenbat bizipen ta sentimendu
nolako begi distira,
mundura sortu nindutenetik
laurogei urte joan dira.

2/ Etxe berean zazpi senide
hazi ginen geure kasa,
umore onez, giro goxoan
aspertzen ez zen erraza,
ezkutaketan, sokasaltoan,
pilotan denbora pasa,
izan zitezkeen jolas-parkerik
onenak frontoi ta plaza.

3/Gazte denboran erromerian
Aian lantzean-lantzean,
nahiz neskontzako ez zen xamurra
lotsak uztea atzean,
dantza soltean, agarratuan,
mutilen bati heltzean,
festa moldatzen genuen, baina
iluntzerako etxean.

4/ Eliza eta fedea ziren
gure bizitzaren gako,
senar-emazte bihurtu ginen
hogeita bat urterako,
nik Michelinen lan egin arren
ezkondu artean bapo,
egun hartatik ez nuen irten
lanera etxetik kanpo.

5/ Andreon bizkar seme-alabak
hautsa kentzea, arropa,
bazkalorduko porru-patatak,
afaltzeko arto-zopa.
Eguneroko eginbeharrak
eskuekin ezin konta,
baina hurkoen poza nahiko zen
nahiz bizi lanak itota.

6/ Egunak joan gauak etorri
bizitza igaro ahala,
baldartu zaizkit esku laztuak
zuloz josi amantal,
bilobek sarri berotzen dute
nire bihotz ta magala,
ez al da egia aro bakoitzak
bere xarma badaukala!

7/ Goizean jaiki zortzietan ta
kafesnea ta gailetak,
bazkal aurretik etxeko lanak
ogia ta erosketak,
bazkalostean paseotxo bat,
iluntzerako hiletak,
datozen eran onartu behar
dira garai aldaketak.

8/Unean bitan egiten diot
medikuari bisita,
audifonoa dut belarrian
bistan dezente jaitsita,
baina umorez ta ilusioz
gainezka daukat patrika,
egun ni bezain bakean ez da
auzotar asko bizi ta.

9/ Zaharberritu ditut sentipen
ta oroitzapen bildumak,
gogoan dauzkat lehen zein oraingo
lagun maiteak, kuttunak,
ezustekorik ez badakarkit
lotan nire osasunak,
bihar goizean atzo bezala
argituko du egunak.

# 3. saria: “Dirua alkate”, Jon Aizpurua

**Doinua: “Nor bere mundu intimo”**

1/ “Ez ak ezertxo kontatu”
esan dit abokatuak,
“hortarako galdeketak
hortarako juzgatuak”,
dauzkanez bi eskuak
eskuburdinez lotuak,
ea zeldako ilunak,
argitzen ditun kontuak.
Gutun batean doaz dihoaz
oraindaino gertatuak
batzuk horren ageriko,
beste batzuk sekretuak.
Berandutxo egin da ta
ezin garbitu eskuak,
ai! Nik soilik banituzke
gordetzeko pekatuak.

2/ Dena hasi zen herrian
hain maite nuen lekuan,
zinegotzi bat behar ta
hartu ninduten kontuan
hirigintzak lau urte
ia bekadun moduan.
Alkatearen itzala
bihurtu nintzen orduan,
bere begiko hartua
han-hemen sartu ninduan
ia jolas bat bailitzan,
zamarik gabe buruan.
ez dut esango ez zela
deus mugitzen inguruan,
itxuran hain zen normala
denok onartzen genduan.

3/ Eta hark erretiroa
hartuko zuela eta,
bazetorrela inondik
espero zen aldaketa
lagunetan lagunena,
deitu zidan ahopeka
ezetza baietz bihurtu
hitzak iltzatuz kolpeka
denak lore ta txaloak
euren zalantzak aseta
ez zen bidetik atera
zikindu zuten erreka,
ia konbentzitu nintzen
banuela errezeta,
ohartzera heldu gabe
zein zen nere hipoteka.

4/ Ez ziren bi aste pasa
dena ospakizun ta jai,
lehen bilerara deitu
ezin zirela egon zai,
alderdikide nuela
ginela ideien anai,
aurreko jardunarekin
beharko nuela jarrai,
sobretxo bat niretzako
ta hura ez zela sabai,
alderdirako maleta
denak egoteko lasai,
ugazabaren errotak
bazuen nahiko erregai
ta sua denontzat bazen
ez nuen hotzak egon nahi.

5/ Parke natural bat zenak
nori axolako dio?
Lau kau katu protestarako
twiterren hamabi txio,
haseran hiru eraikuntza
izan zitezen abio,
gero handituko zena
jarri baikinen serio,
trena, hipermerkatua...
dena espekulazio,
hango orein ta zuhaitzak
hormigonatu ta_adio,
deitu nahi dezuten dena
txikitzaile, sikario,
baina zelai berde batek
ez du deustako balio.

6/ Eta hain kontra zeudenak
bozketak iristean,
zer geratuko irrikan
esperantzaren tristean,
urteak joan etorri
hor ziren boro eskean,
ederra inozentzia
besteengan ikustean,
agintzen duna ordea
diru banatzen hastean,
egindako faboreak
itzul daitezen eskean
agur etika, ideiak
ondo gauden bitartean,
zein ederki bizi garen
arazoetaz ahaztean.

7/ ”Halakok lana behar du”
“sartu semea listetan”,
Konkurtsoa nola doa?
Zelan puntu banaketan?”
Aurrena tantaka zena
lehendabiziko urtetan,
eske iturri bihurtu
herritarren ahoetan,
axolarik ez moduak
zer zegoen horren bueltan
denontzat iristen bazen
berriz garaile bozetan,
orain ni nago atxilo
lagun gabeko zeldetan,
nahiz egin nuena ez zen
soilik nire mesedetan.

8/ Hogei urte alkatetzan
izan ote naiz ba mago?
Hauteskutxetan botoak
birkontatzekotan nago
sei urte hasi zirela
epaiketak eta klaro,
beste bi aldiz alkate
esango dut argiago?
Bakarrik ezin liteke
izan aginte oparo,
eta eskerrak ematen
asmatu beharra dago.
Gora herria! Gora gu!
Ez dut besterik esango,
zuen laguntzarik gabe
ez zen posible izango.

# Legegintzaldi berria martxan

Legegintzaldi berria abiatzeko baliatu zuten, ekainaren 30ean egin zuten estreinako osoko ohiko bilkura; udal talde eta batzordeak osatu, batzordeotan eta bestelako organo zein erakundeetan izan beharreko ordezkaritza adostu edota liberazioak onartzeko plenoa izan zen.

Lehenik eta behin, datozen lau urteotako osoko bilkuren egutegia, ordua eta maiztasuna finkatu zuten. Orain arte bezala, ohikoak diren osoko bilkurak, hilabeteko azken astearteetan ospatuko dira, udalbatza aretoan eta arratsaldeko 18:00etan hasita. Aldaketarik ez beraz, plenoen hitzorduei dagokionez.

Legegintzaldi berrirako 10 Batzorde Informatzaile osatu dituzte. Xabier Arregi alkate berriaren esanetan, "bat dator guk aurreikusitako lan ildoekin". Batzorde bakoitza 5 kideek osatuko dute. Lan taldeon osaerarako bi irizpide hartu dituzte kontuan; udal taldeek duten ordezkaritza proportzionaltasun irizpidea, eta baita "presentzia izatea udal talde guztiek". Gogoan izan hiru udal talde ditu udalbatza berriak; EHBildu (8 zinegotzi), EAJ-PNV (4 zinegotzi) eta PSE-EE (zinegotzi bat). Proposamena aho batez onartu zuen udalbatzak.

**3 liberatu**

UEMA, EUDEL, San Marko Mankomunitatea, Udalbiltza edota beste zenbait erakundeetan Udalak izan beharreko ordezkariak ere izendatu zituzten ekainaren 30eko saioan. Eta baita liberatu kopurua ere. Azken bi gaiotan egon zen desadostasunik, gobernu taldearen eta oposizioaren artean. Josune Urkola bozeramaile jeltzaleak, EHBilduk beste erakundeetarako proposaturiko udal ordezkaritzaren aurka bozkatuko zutela iragarri zuen, haien taldeak ordezkaririk izateko aukerarik ez dutelako. Alkateak irekitasun osoz jarduteko asmoa izan eta EAJ-ren aldetik proposamen zehatzik ez dutela jaso adierazi zuen.



Legealdiko lehen plenoa ekainaren 30ean egin zen.

**2015-2019 legealdian**

***"Batzorde bakoitza 5 kidez osatuta egongo da eta udal talde denak egongo dira ordezkatuak"***

Beste desadostasun puntua, liberazioei loturiko proposamenak eragin zuen. Alkatea eta gobernu taldeko bi zinegotzi liberatu izango ditu udalbatzak, guztira hiru liberatu beraz, aurrekoan bezala, legegintzaldi berri honetan ere. Usurbilek dituen biztanle kopurua kontuan izanda, udalbatzak izan ditzakeen gehienezko liberatu kopurua hain zuzen.

Alkateak lehendik zuen laneko soldatari eutsiko dio, "zerbait gutxiago irabaziko" duela zehaztu zuen. Eta bi zinegotzi liberatuek (Alaitz Aizpuruak eta Jone Urdanpilletak), 13. mailari dagokion ordainsaria, hau da, udal administrari baten parekoa.

**EAJ alderdiarentzat "proposamen partziala"**

Gaiak desadostasuna eragin duela adierazi dugu, EAJ-PNV-ri "proposamen partziala" iruditu baitzitzaion. Liberazio kopuru eta ordainsariekiko adostasuna agertu zuten arren, jeltzaleek azaldu zutenez, "oposizioak dedikazioa eskatzen du". Eta gobernu taldeak ekainaren 30eko osoko bilkurara eramandako proposamenean "gure dedikazioa ez da ageri" zioen.

EHBildutik argitu zitzaien bi kontu ezberdin direla; bat liberazioena, bestea dieta eta bestelako asignazioak. Kontuok aurrerago Ogasun Batzordera eramatekoak zirela aipatu zuten. EAJ-tik aldiz, "guk dena osotasun batean planteatzen dugu" adierazi zuten.

**EHBildurentzat, hiru liberazioak beharrezkoak**

Gobernu ardurengatik EHBilduk beharrezkotzat jotzen ditu 3 liberazioak, eta gaineratu zutenez, liberazioen gaiak ez du baldintzatuko, aurrera begira dieta eta bestelako asignazioetan markatu daitezkeen kopuruak. Azkenean, aurreikusi bezala, gobernu taldetik ekainaren 30eko osoko bilkurara eramandako proposamena bere horretan mantentzea erabaki zuten. EH Bilduk eta PSE-EEk alde bozkatu zuten, EAJ-PNVk aurka. Jeltzaleak aurka agertu ziren baita, Udalak beste erakundeetan izango dituen ordezkariak izendatzeko proposamenaren bozketan. PSE abstenitu.

## Hiru udal talde eta hamar batzorde informatzaile

**3 udal talde**

- EH BILDU talde politikoa: Xabier Arregi Iparragirre (bozeramailea), Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Josune Estella Arranz eta Joxe Mari Iribar Zapirain.
- Usurbilgo EAJ-PNV talde politikoa: Josune Urkola Larrarte (bozeramailea), Mirari Azurmendi Sorazu (ordezko bozeramailea), Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Pérez Fraisoli.
- Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal talde politikoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri (bozeramailea).

**10 Batzorde informatzaile**

- Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia.
- Hezkuntza eta Garapena.
- Nekazaritza eta Ingurunea.
- Hirigintza.
- Zerbitzuak eta Obrak.
- Kultura, Euskara eta Gazteria.
- Pertsonala.
- Parekidetasuna eta Aniztasuna.
- Osasun eta Gizarte Zerbitzuak.
- Kirola.

**Batzordeen osaera**

- Kide kopurua: 5.

Talde politiko bakoitzak izango duen ordezkari kopurua: 3 kide EHBilduk, kide bat EAJ-PNV-k eta kide bat PSE-EE-k.

**Zinegotzi liberatuak**

- 3 liberazio. Dedikazioa: osoa.

Liberatuak izango diren udal ordezkariak:
Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.
1. alkateordea: Alaitz Aizpurua Labaka.
2. alkateordea: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Beste organoetako ordezkaritza:**

UEMA, EUDEL, Euskal Fondoa, Kontseilu Eskolarrak, Behemendi, Añarbe, San Marko mankomunitatea, Garbitania eta Udalbitzan, EHBildukoak izango dira ordezkariak.

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua

NOAUA!KO **bazkide guztien artean** zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek, uztailaren 17an




ORIOKO AISIAN 2 LAGUNENTZAKO GAU BAT + ZIRKUITU TERMALA+ PENTSIO ERDIA

aisia ORIO




2 LAGUNENTZAKO AFARIA ATXEGA JAUREGIAN

atxega Jatetxea




2 LAGUNENTZAKO ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN

aisia ORIO

## noaua! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu

(36€ urtean soilik) 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

# Ustekabean agertu zen zikoina





Egileak, Jokin Eizagirre usurbildarrak aurreratu zigun aurreko asteetan, ustekabean, gutxien espero genuenean agertuko zela Santixabeletako maskota. Eta adi egoteko gonbita luzatzen zigun. Sekretupean ondo baino hobeto landu eta gordetako artelana ekainaren 30ean ezagutu ahal izan genuen. Goizeko 10:00ak baino lehen, Mikel Laboa plazan agertu zitzaigun jaiotan frontoian zintzilik egon den zikoin eder eta galant askoa. Hasieran Sutegi gainean jartzekoak ziren. Zenbait proba egin ostean ordea, ohiko tokian, frontoian zintzilikatzea hobetsi zuten. Eta hantxe egon zen, jaien amaieran, herriko dantzariek eskainitako emanaldiarekin batera, azken trakan erre zuten arte.

# 11 eguzki ederrenak saritu zituzten XIII. Pintura Lehiaketan

Sormenerako gaitasun itzela erakutsi dute herriko haur eta gaztetxoek, herriko jaietan ospatu den XIII. Pintura Lehiaketan. Eguzkia irudikatu behar zuten marrazki lanetan eta bakoitzak bere estilora islatu zuen uztailaren 2an, kolore bizi eta alaiekin. Txapelketara aurkeztu ziren lanen artean, honako hauek dituzue sarituriko en izen abizenak eta nabarmendu zituzten marrazkiak:



Sarituak

- 4 urtekoen artean: Jakes Molano.
- 5 urtekoen artean: Adur Soroa.
- 6 urtekoen artean: Nora del Campo.
- 7 urtekoen artean: Unai Sarasua.
- 8 urtekoen artean: Lur Etxebarria.
- 9 urtekoen artean: Peru Agirresarobe.
- 10 urtekoen artean: Olatz Zabaleta.
- 11 urtekoen artean: June Ruiz.
- 12 urtekoen artean: Pello Ibargoien.
- 13 urtekoen artean: Unai Lopez.
- 14-15-16 urtekoen artean: Ianire Unanue.

### ETB1eko Kantugiro egunotan emitituko dute

ETBk jaietan eginiko grabazioak, uztailaren 8an eta 9an ikusi ahal izango dituzue, iluntzeko 21:15ean hasita.


jostailu denda
Txirinbolo
X4 GYRO
URTEURRENEKO Jokua!
UZTAILAREN 11AN GOIZ GUZTIAN ZEHAR
Asmatzailearentzat
DRON bat!
eta 10 opari gehio
hurbiltzen direentzat!
Etxebeste Kalea, 15
943 37 75 96
Usurbil


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
✆ 943 36 46 00
www.lhusurbil.com
Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak
Administrazioa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.
Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.
MATRIKULA ZABALIK uztailaren 16tik 21era

# Usurbil Cup, partehartzaile denak garaile





















MOTZ




















MOTZ


MOTZ




MOTZ








MOTZ







# Jende ugari ibili da aurtengo jaietan









































**Ekitaldi askoren kronikak momentuan idatzi eta igo genituen noaua.eus web orrira eta NOAUA!ko sare sozialetara. Hala nola, bideo ugari grabatu eta igo ditugu youtubeko NOAUA!TB kanalera. Atari horietan topatuko dituzue argazki gehiago.**

# Eztabaida piztu du aurtengo idi-demak

Uztailaren 5ean 18:00etan Dema plazan, "Euskal Herriko torturatzaile finenen erakustaldia" egongo zela zioten kartelak agertu ziren lehenik. Kartelez gain, pintada bat ere agertu zen Elizako horman. Heldu zen Santixabeletako azken jai eguna, uztailaren 5a, eta "Esklabutzarekin amaitu! Animaliak askatu" zioen pankarta bat eseki zuten herri kirol probetarako antolatzaileek jarritako itxituran zintzilik. Eta pankartaren atzean, lagun talde bat bildu zen idi-demaren aurka protestatzeko. Proba hasi zenean zutitu eta saioari bizkar emanez, ekimenaren aurka zirela adierazi nahi izan zuten.

Idi-dema ikustera gerturaturiko zenbait zaleturen eta protesta ekimena burutzen ari zirenen artean eztabaida piztu zen. Tentsio uneren bat bizi izan zen.

## "Animaliak maite ditugu"

Bestalde, pintada, pankarta eta kartelen aurrean, idi-dema hasi aurretik adierazpen bat irakurri zuten antolatzaileek bozgorailuetatik. Nagusiki, protestekiko desadostasuna adierazteko. "Euskal Herriko torturatzaile finenen erakustaldia diozue. Animaliekin bizi gara eta animaliak maite ditugu. Gonbidatzen zaituztegu nola zaindu eta nola prestatzen ditugun ikustera", adierazi zuten.

Elkarrizketarako bidea zabalik utzi zuten. "Zuekin hitz egitera irekiak gaude eta Dema guretzat eta herriarentzat zer den azaltzera", gaineratu zuten. Antolatzaile eta zaletuen izenean, eskaera batekin amaitu zuten adierazpena. "Eskatzen dizuegu egin dituzuen epai eta irain horiek erretira ditzazuen eta nahi duzuenerako badakizue gu non gauden", esanez amaitu zuten, plazara hurbildutakoen txalo eta txistu soinuen artean.






Idi-demaren antolatzaileek idatzi bat irakurri zuten proba hasieran. Bideoan jaso genuen adierazpena.

# Joxe Mari Zubimendi, Zubietako alkate berria

Larunbat eguerdian osatu zen Zubietako Herri Batzarra. Joxe Mari Zubimendi izango da Zubietako alkate datozen bi urteotan. Ekitaldian, Eneko Goia Donostiako alkateak eta Xabier Arregi Usurbilgo alkateak hartu zuten parte.

**Eneko Goia: "Deszentralizazioan sinesten dugu"**

Batzarra eratu eta berehala, Eneko Goiak hartu zuen hitza. Eskerrak eman zizkien "aurreko auzo batzarretan (sic) partehartu izan dutenei, bereziki Donostiari dagokion aldetik partehartu dutenei, egindako lanarengatik. Eta zoriondu, oraingo auzo batzarreko kide berri izango zaretenoi". Donostiako udaletxearen izenean asmo eta nahi bat azaldu zuen: "guk sinesten dugu deszentralizazioa tresna egokia dela herritarrek eskatzen diguten gertutasun hori ahalbidetzeko. Espero dugu kapaz izatea zuekin batera eskutik lan egiten. Hori da gure desioa. Alde horretatik, bidelagun izateko aukera izango dugula".

**Xabier Arregi: "Zubietarren iritzia kontuan hartuko dugu"**



Herri Batzarraren eratze-ekitaldiaren bideoa noaua.eus web orrian dago jasoa.

Xabier Arregiren txanda iritsi zen ondoren. Eskerrak ematen hasi zen Arregi: "horrelako erakunde batean partehartzeko borondatea erakutsi izana. Iruditzen zait norbere bizitzatik zati bat herrigintzari eskaintzea oso garrantzitsua dela, eta are gehiago gainera, erakunde hori denean udal administrazioan erakunde estandartzat hartzen ez dena".

Herri Batzarra eratu zenean, arautegi bat onartu zela ekarri zuen gogora. "Muinean esaten zen zubietarrei kasu egingo zitzaiela, euren iritziak, aholkuak aintzat hartuko zirela eta Zubietan egiten ziren gauzetarako beti Zubietako Herri Batzarrarengana joko zela. Gaur ez naiz ezer agintzera etorri hona, baina bai konpromiso bat hartuko dudala hemen: arautegi horrek muinean jasotzen duena geure egiten dugula. Zubietako gaiak lantzerakoan, zubietarren iritzia kontuan hartuko dugula beti Usurbilgo Udaletxean".

Xabier Arregiren ustez, "partaidetzan eta elkarlanean sinisten dugunontzat, erronka eta eginkizun oso polita dugu". Gai txikietatik hasi eta "errauste-plantaren gairaino", eta adostasunaren bidetik jotzeko proposamena egin zuen Usurbilgo alkateak. "Ez diogu Zubietari inposatuko inork nahi ez duen gauzarik. Horretan sinesten dugu eta horretan arituko gara. Beraz, batzarkideok, gu bidelagun gaituzue. Bide bat egiteko prest gaude eta horretan saiatuko gara".

**Joxe Mari Zubimendi, lankidetza eske**

Talde polita osatu dutela esanez hasi zuen bere mintzaldia Zubimendik. Gauzak txukun egiteko moduan izango direla, "beti ere Donostia zein Usurbilgo udalek beren borondatea azaltzen badute, bestela gure ahalegina nahikoa alperrikakoa izango da". Xabier Arregiren asmoarekin bat eginez, "espero dut bi udalek lankidetza hori bultzatzea".

### Errausketaren aurkako pankarta

Ekitaldi hasieran, "Errausketarik ez, ez lehen eta ez orain" zioen pankarta zabaldu zuten herritar batzuk.




# Zubietarrak ere atez atekora batu dira

Uztailaren 1az geroztik Santuenetik Zubieta Kaxkora arteko eremuan martxan dute atez ateko bilketaren lehen fasea. Usurbilgo ordutegi eta bilketa egutegi bera izango dutenez, papera eta kartoia jasotzea tokatu zen lehen egunean. Usurbilgo eremuan bizi diren zubietarrek baliatu ahalko dute atez ateko bilketa zerbitzua, baina aukera bera dute baita aipatu zonaldean, Donostiako eremuan bizi direnek ere.

**Igande honetan, erreus bilketarik ez**

Gogoan izan, aurrerantzean birziklaezina den zati hau bi astean behin bilduko duela Usurbilgo Udalak. Uztailaren 5ean jaso ostean, erreusaren hurrengo bilketa zerbitzua, uztailaren 19an.



Usurbilgo egutegi eta ordutegi-bilketa berbera izango dute Zubietan.

### Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzeko garaia

Uztailaren erdialdera arte zabalik dago Oinarrizko Lanbide Heziketan 2015-16 ikasturtean izen emateko epea. Bi ikasturtez bi espezialitatetan hezteko aukera eskaintzen dute Atallu industriagunean: Sukaldari zerbitzari langilea; Ile-apainketa laguntzailea.

**15-17 urte artekoentzat**

Ikasketa prozesu honen baitan, enpresetan egin ohi diren lan praktikak txertatzen dituzte. 15-17 urte arteko gazteei zuzenduriko heziketa ziklo hau gainditzen duenak, Erdi Mailako zikloetarako sarbide zuzena du. Egokia bereziki lanbide bat ikasi eta lan munduan murgildu nahi dutenentzat. Argibide gehiago: 943 360 465 / lhi@usurbil.eus

# Xabier Santxo eta Erasun nagusitu ziren Pilota Txapelketako finalean

Ikusgarria izan zen Usurbilgo 43. Pilota Txapelketako Lehen Mailako finala. Sendo hasi ziren Arrieta (Hernani) eta Elola (Lasarte). Aurretik joan ziren ia partida osoan baina azken txanpan suspertu egin ziren Santxo (Usurbil) eta Erasun (Zizurkil). Giroa bero, harmailetako jendeak herriko pilotariaren alde egin zuen eta azkenean 22-20 emaitzarekin nagusitu ziren Santxo eta Erasun. 2. Mailako partidan, Villabonako Maiz-Erreka bikotea nagusitu zen.



Santxo (Usurbil) eta Erasun (Zizurkil) nagusitu ziren finalean.

Pagazpe Usurbilgo Pilota Elkarteko kideek eskerrak eman nahi dizkiete babesle eta laguntzaileei:

- Babesleak: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Kirol Patronatua, Aginaga sagardotegia, Saizar sagardotegia, Bordatxo edaritegia, Kima masaia-lekua, Easo, Manpel, Hurbilago, Bruño mariskoak, Alkartasuna Kooperatiba, Aizpurua autobusak.
- Laguntzaileak: Txiriboga taberna, Arruti harategia, Patri jatetxea, Antxeta jatetxea, Aitzaga taberna.

Errifen zozketan, 4242 zenbakiari egokitu zitzaion urdaiazpikoa. 4161 zenbakiaren saritua, zozketa egin zen unean behintzat, ez zen azaldu.

# Harri-jasotze erakustaldi ikusgarria

Harri jasotze erakustaldi bikainak ospatu dira jaietako asteburu honetan. Hasteko, Aiako Santio auzoan Joseba Ostolazak eta Zarautzen Joxe Ramon Iruretagoiena Izeta IIak zuzentzen dituzten harri-jaso–tze eskolen arteko norgehiagoka larunbatean. Eta igandean, Idoia Etxeberriaren eta Estitxu Almandozen erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten, Dema plazara gerturatu zirenek.


Estitxu Almandoz eta Idoia Etxeberria aritu ziren aurrez aurre.

## Jon Carbayeda, NOAUA!ko bazkideen arteko zozketan saritua

Ekainean iragarri genuen orriotan. Aisia Hotelean bi lagunentzako zirkuitu termala zozketatzekoak ginela. Gainera, honakoan ez zen aurretik emailik bidali behar.

Bazkide guztien artean egin dugu zozketa eta Jon Carbayeda izan da zorionekoa. Berak aukeratzen duen lagunarekin, Orioko Aisia hoteleko zirkuitu termala osatu ahal izango du.

**Uztailaren 17an zozketa mundiala**

NOAUA!ko bazkide bazara, adi, beste hiru zozketa egingo ditugu uztailaren 17an. Zorte on!

- Bi lagunentzako beste zirkuitu termala, Orioko Aisia hotelean.
- Bi lagunentzako afaria Atxega jauregian.
- Bi lagunentzako gau bat Orioko Aisian, pentsio erdian, eta zirkuitu termala.

**Bazkide egin eta zozketa hauetan partehartu**

Oraindik bazkide ez zaretenok, zozketa honetan partehartzeko aukera duzue. Baina lehenbizi bazkide egin beharra duzu. Bazkidetza orria osatu, opari ederra jasoko duzu eta hilaren 17ko zozketa mundialean hartuko duzu parte.



Jon Carbayedak ezin bertaratu eta bere arreba pasa zen sari bila.

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Gazteak nagusi Pala Txapelketan

Pala txapelketari eskainitako arratsaldea izan genuen Santixabelak hasi aurreko bezperan. Lehenik eta behin, pala egokituko adiskidantzazko partidaz gozatzeko aukera izan zen. Kirol egokitua gertutik ezagutzeko aukera paregabea. Eta gero, azken asteotan zehar jokatu diren emakumezko zein gizonezkoen pala txapelketako finalak ospatu ziren.

■ Emakumezkoak: Miriam-Miren txapeldun, Alaitz-Garazi txapeldunorde.
■ Gizonezkoak: Imanol Esnaola-Josu Arruti txapeldun, Jon Olaizola-Enrike Huizi txapeldun orde.



**Miriam-Miren bikotea nagusitu zen nesketan, eta Imanol-Josu bikotea mutiletan.**

# Carlos Jimenez, Le Mans-eko 24 ordutan

Autoen lasterketarengatik da ezagun Le Mans-eko zirkuitua, baina bestelako kirol jardueretan ere egiten dira 24 orduko lasterketak. Le Mans-eko 24 ordutan izan berri da Carlos Jimenez. Roller txapelketa jokatu da bertan eta emaitza bikaina eskuratu dute euskal ordezkariek.

Gaur egun oso zabaldua dago, partehartzaileak gero eta gehiago dira eta lasterketak ere ugarituz doaz. Baina bere garaian, roller (patinean) kirolean aitzindarietakoa izan zen Carlos Jimenez.

Le Mans-eko lasterketa banaka edo taldeka egiten da. Aurten, bi talde aritu dira euskal selekzioa ordezkatzen. Biak beteranoen mailan. Eta horien artean Carlos Jimenez. Lehen eta bigarren postuan amaitu dute, beraz, emaitza ezin hobea eskuratu dute.

Talde bakoitzak 800dik gora km distantzia osatu behar izan zuen.




**Beteranoen euskal selekzioarekin aritu da Carlos Jimenez (jezarrita, eskubikoa).**

## Arria V, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako irabazlea

Xabier Orbegozo "Arria V" nagusitu zen Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako finalean. Erakustaldi bikaina egin zuten lehiakideek. Honela geratu zen sailkapena:

| | |
|---|---|
| 1-Arria V | 13'45" |
| 2-Irazu | 15´08" |
| 3-Mujika | 15´09" |
| 4-Otaño | 16'53" |
| 5-Mugertza | 16'56" |
| 6-Txapartegi | 17'02" |

Aurretik harri-jasotze saio ikusgarria ospatu zen: Aiako Santio auzoan Joseba Ostolazak eta Zarautzen Joxe Ramon Iruretagoiena Izeta II-ak zuzentzen dituzten harri-jasotze eskolen arteko norgehiagoka.



**Aizkolariak, sari banaketan.**

## Pirinioetako irteera prestatzeko bilera, Andatzak deituta

Asteburu honetan Pirinioetan izango dira Andatza mendi taldeko kideak. Bi eguneko irteeran, Hiru Erregeen Mahaia eta Auñamendi mendietara igotzeko asmoa dute. Izen ematea uztailaren lehenean amaitu zen. Baina izena eman dutenek hitzordua dute ostegun honetan, uztailak 9, arratsaldeko 19.00etan Sutegin.
Informazio gehiago: andatza.com
Deitzailea: Andatza M.K.T.












## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua salgai kaxkoan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Altzariekin. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Tlf: 670070562.

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezkero garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Pisua alokatzen da kaxkoan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Altzariekin. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Tlf: 670070562.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Beheko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Atxegalden etxe bat, 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, estudioa, argitsua, sartzeko prest, berogailu zentralarekin, 670 410 273

Gela bat alokatzen dut Erreka-Txikin. 665319105 / 943367232

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapax-etik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrenea 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Pertsona bat behar dugu asteburutan lan egiteko. Euskalduna eta esperientziarekin. Utzi kurrikulum-a Laukoten.

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766

## Heriotzak

**Elena Arrillaga Mayoz**

90 urterekin hil zen uztailaren 6an, Urdaiagan



**OHARRA:** Uztailaren 24an aterako dugu ikasturteko azken NOAUA! astekaria. Gero oporrak hartuko ditugu eta ez da aldizkaririk izango irailaren 11 arte. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: uztailak 20. erredakzioa@noaua.eus

068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

**BESTELAKOAK**

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Geltokiaren ondoan "skate" egiteko patinete bat aurkitu dut. Galdu baduzu deitu 943 362 088.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohe bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Oa botika | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Uztailak 09-uztailak 19

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 09 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Ostirala** | 10 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Larunbata** | 11 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Igandea** | 12 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Astelehena** | 13 | RODRIGUEZ | Kale Nagusia 42. Lasarte |
| **Asteartea** | 14 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Asteazkena** | 15 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Osteguna** | 16 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Ostirala** | 17 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Larunbata** | 18 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 19 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

# Agenda uztaila

## 09 osteguna

- **Bilera: Andatzak antolaturiko Pirinioetako irteera antolatzeko.** Sutegin, 19:00h.
- **Laboaren Uztaila:** afari beganoa+MMatarrak. 20:30ean Mikel Laboa plazan.

## 11 larunbata

- **Pirinioetara asteburu pasa: Hiru Erregeen Mahaia-Anie** andatza.com
- **Ibilgailu Klasikoen I. Topaketa,** 12:00etan ibilgailu klasikoak Usurbilgo Dema plazan.

## 12 igandea

- **Pirinioetara asteburu pasa: Hiru Erregeen Mahaia-Anie** andatza.com

# Afari batekin eta MMtarrak-en kontzertu batekin hasiko da Laboaren uztaila

Afari begano eta MMatarrak taldearen kontzertua. Horrela abiatuko da Laboaren uztaila zikloa. Ez da gaztetxean izango baizik eta Mikel Laboa plazan. Ostegun honetan lehen saioa.

### Uztailak 9, osteguna

- Mikel Laboa plazan, 20:30ean.

Zehaztasunak: "Afari beganoa + MMatarrak bikotearen poesia errezitaldi musikatua. Okene Abrego eta Mariano Hurtado ezkutazen dira MMa izenaren atzean.. Urteak atzera Bap! taldeko kidea, eta egun Inoreneroni taldeko abeslaria dugu Okene Abrego. Erritmo azkar eta oldarkorrak jorratu izan ditu ohikoan, beti ere, bere ahots berezi eta sakonaz. Emanaldian Mariano Hurtado (Inoreneroni, El Hombre Burbuja) baxu-jotzailea izanen du taulan lagun".

### Uztailak 16, osteguna

- Mikel Laboa plazan, 21:30ean.

Zehaztasunak: "MARA bakarlariaren saioa. Igor Arzuaga, ezkutatzen da proiektu honen atzean, Exkixu talde arrakastatsuan eta Mikel Urdangarinen lehen diskoetan parte hartu zuen, harik eta bakarkako kantu egile ibilbideari ekin zion arte. Orain arte bi disko kaleratu ditu bere



Ostegunero izango dira ekitaldiak. Ostegun honetan MMtarrak, Mariano Hurtado eta Okene Abrego.

izenpean ('Argi izpi bat' eta 'Smog', biak Gaztelupeko Hotsak-ekin) eta beste bi ('Lagun eroa' eta 'Unibertsoa gu') Mara izenpean, bere kantuak interpretatzeko Arzuagak sortutako 'pertsonaia' edo alter egoa.

Esan daiteke Arzuaga bere ahots propio eta berezia aurkitu duela urte hauetan zehar. Horrez gain, instrumentu bat baino gehiago menperatzen dituen musikaria da: pianoa, gitarra, soinu txikia, akordeoia, aho-soinua…

Azken garaian Luis Vil musikariarekin lan egiten du eta elkarrekin kaleratu dute 'Mara-Mara' izeneko lan ederra. Saio honetan aurkezteke dituen Laboaren bertsio batzuk joko ditu bere abestiekin tartekatuz".

## Datozenak

### Udan ere, Sutegi udal liburutegia zabalik

Hala da, udan ere Liburutegiko ateak zabalik aurkituko dituzue, baina hori bai, zenbait aldaketarekin.

- Udako ordutegia: Ekainaren 29tik Irailaren 4ra. Astelehenetik Ostiralera, 9:30etik 14:00etara.
- Inbentarioa: Abuztuaren 4tik 10era
- Liburutegia itxita egongo da.

Maileguak itzultzeko buzoia: Liburutegia itxita dagoenean.

- Harremanetarako: 943360692; mezuak: biblioteka@usurbil.eus; twitter (mezu pribatuak): @usurbib

"Amaitzeko, gure uda guztietako irakurketa/ikusentzunezko gomendioak: iritsi dira Liburutegira… FRESKAGARRIAK 2015!. Eta gomendio gehiago, twiterren: #gomendioak izenpean. Uda on!".

**Liburutegia, non?**

- Irazu 14 kalean.
- Sarean: Bloga: http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/
- Twitter: @usurbib
- Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia
- Noaua! Komunitatea: Sutegi Udal Liburutegia
- App: Liburutegiak










aisia
ORIO
JATETXEA
· EGUNEKO MENUA · ASTEBURUKO MENUA
· MENU EXEKUTIBOA · KARTA
· EKITALDIAK (EZKONTZAK, BATAIOAK..)
· ITSASKI ETA ARRAINETAN BEREZITASUNA
· MARISKADAK ·PAK BEREZIAK (GASTRONOMIA + TALASO+ GAUA)
Hondartza bidea 1, Orio 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com


SANTIXABEL JAIAK 2015
WWW.NOAUA.EUS WEB ORRIALDEAN, JAIETAKO BIDEO UGARI
IPINI DITUGU IKUSGAI.
ESKUKO TELEFONOAREN BITARTEZ ERE IKUS DITZAKEZU, KODE HAU BALIATUZ
noaua! euskararen aterpe
Orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa ezberdinetan parte hartzeko aukera izango duzu
(36€ urtean soilik) 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

# UZTAILEAN ETA ABUZTUAN




## 3€ko 100 kontsumizio!!



hurbilago

**3€ko 100 kontsumizio bale zozketatuko dira Hurbilago txartelaren erabiltzaileen artean.**

ALKARTASUNA · Errazkin · tobyngana · Txirinbolo

ARGILAN · AGINAGA SAGARDOTEGIA · SAIZAR · MIKEL ARRAINDEGIA · ALDAMU

JUANTXO · INTZA · Iratze · kaffa · TABERNA · Kontuene · Ane

LIZARDI LIBURUDENDA · Loli Lizarralde · Marije · Bixen · mistoa · Pello · txirriStra · ARRUTI · Olar-Goxo

Paumay · AITZAGA · Larda · Urtinea · IVAN PEREZ · EROSKI city · Esnaola · Aizpurua Okindegia

hurraldebotika · TXAPARTEGI · BORDATXO taberna · LAUROK · Enar · EL ALMACEN DE AGINAGA · USURBIL OPTIKA · ESNAOLA JANARIDENDA · Elexpe